

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

3661

AGINDUA, 2025eko abuztuaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskarrien kidegoko praktiketako funtzionario izendatzen dira 2024ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangaiak.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez (2024ko abenduaren 13ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegora sartzeko lehiaketa-oposiziorako deialdia egin zen.

Aipatutako prozedura ebatzi ondoren, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko uztailaren 30eko Aginduaren bidez (2025eko abuztuaren 11ko EHAA), hautatutako izangaiei behin betiko zerrenda argitaratu zen. Hezkuntzako sailburuaren 2024ko azaroaren 27ko Aginduaren 11. oinarrian xedatutakoari jarraituz, izangai horiek praktiketako funtzionario izendatuko dira.

Horren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaiak. Agindu honen eranskinean daude zerrendatuta.

Bigarrena.– Praktiketako funtzionario izendatzeak 2025eko irailaren 1etik aurrera ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak, betiere praktika-fasea egiteko esleitutako lanpostuaz benetan jabetzearen baldintzapean.

Beren destinora sartzan ez direnek prozedurari uko egiten diotela ulertuko da.

Hirugarrena.– Prozesu hau arautzen duen aginduaren 12. oinarrian ezarritako salbuespenezko kasuetan, izangaiek praktikak atzeratzea eskatu ahal izango dute. Atzeratze horrek ez du aldaketarik ekarriko gainerako izangaiei esleitutako plazetan, ez eta hautatutako pertsonen zerrendan ere.

Laugarrena.– Praktiketako funtzionarioak izendatzen direnetik karrerako funtzionarioak izendatzen diren arte, araubide juridiko-administratiboa praktiketako funtzionarioena izango da.

Bosgarrena.– Praktikaldia egiteko lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira eta hautaketa-prozesuaren ondoriozko puntuazioaren arabera esleituko dira. Praktiketako funtzionario izendatu diren izangai hautatuek nahitaez parte hartu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntzako ikuskari gisa duten behin betiko lehen destinoa lortu arte deitzen diren lanpostuak betetzeko lehiaketetan.

Seigarrena.– Agindu honen eranskinean zerrendatutako izangaiak, egindako izendapenak hautatuak izan diren hautaketa-prozedurako deialdian ezarritako parte hartzeko baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzearen mende egongo dira.

Hautatutako izangaiek aurkeztutako dokumentazioa berrikusi ondoren, hala badagokio, dagokion agindua argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Agindu horretan, izendapenetik baztertuko dira aipatutako hautaketa-prozedura horren deialdian eskatutako baldintzak egiaztatu ez dituzten pertsonak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

Kidegoa: Hezkuntzako Ikuskariak.

Txanda: Irekia.

NAN	Abizenak eta izena	Kodea
8981	Uriguena Nuñez, Naroa	2025000100
7678	Bañares Altuna, Koldo	2025000200
8031	Mendia Gonzalez, Ainhoa	2025000300
8842	Bollar Benedicto, Janire	2025000400
3292	Baraiaetxaburu Zarandona, Ainhoa	2025000600
4262	Uribarren Borrego, Mikel	2025000700
3480	Zabala Aranguren, Aitor	2025000800
7615	Martinez Perez, Rosana	2025000900
6305	Rubio Perales, Beatriz	2025001000
7753	San José Castro, Laura	2025001100
4060	Cia Olascoaga, Iñaki	2025001200
9594	Ibañez Suances, Maria Aranzazu	2025001300
8187	García Ibañez de Garayo, Iñigo	2025001500
5849	Guirado Perez, Imanol	2025001600
2514	Marcaida Gorostiaga, Imanol	2025001700
1082	Amezaga Amezua, Mikel	2025001800
3155	Blazquez Martin, Francisco Javier	2025001900
5151	Martin De la Cruz, Ana Belén	2025002000
3819	Etxebarria Grande, Mikel	2025002100

Kidegoa: Hezkuntzako Ikuskariak.

Txanda: Desgaitasuna.

NAN	Abizenak eta izena	Kodea
4627	Bedoya Valencia, Cristian	2025000500
7465	Larrea Larrondo, Andeka	2025001400